

HERRIAK ETA GIZONAK

ALDIZKARIAK ETA DEMOKRAZIA

Demokrasi politikoa, demokrasiaren forma utsa, era utsa, engañamendu aundi bat dela esaterakoan ba dira ori zapuztutan dabiltzan esatera bat besterik ez dela uste dutenak. Bai baidira demokrazia partiduetako askatasuna, pentsatu ta mintzatzeko askatasuna, biltzeko askatasuna ta noizean beñ elezioak izan ezker demokrazia ondo djoala uste dutenak. Ta orregatik demokrazi politikoa eta demokrazi forma besterik ez dakarkiten orrelako joerak ontzat artzen ez dituzentzat madarikazio aundiak botatzen dituztenak. Baiñan...

Gaur egunean Okzidenteko Europa'n esan liteke diruaren eta finantzen agintea gutxi batzuen eskuetara irixi dela monopolio ta oligopolioen bitartez. Baita ere pasatako egun batean idatzi nuen nola gaurko gizarteari buruz politikari dagokionez bi postura artu ditezken. Bata gizarte ori defenditzea, gaurko gizarte orrek bere interesak ondoena defenditzen dituztelako. Bestea berriz gaurko gizarte orren aurka egitea, gizarte orretan bere interesak menperatuta daudelako. Gaurko gizarteak ordea gutxi batzuen interesak defenditzen dituzte ta geienen interesak menperatzen. Gaurko ori defenditzen dutenak konserbadoreak eta eskuindarrak dira ta ori onartzen ez dutenak ezkertiarrak eta progresistak. Biak nai ezta ere burrukan arkitzen dira baiñan burrukarako arma desberdiñak dituzte. Konserbadoreak diru ta gaurko gizartearen agintea. Ezkertiarrak, benetakoak baldin badira beinepeñ, jendea, erria ta arrazoiak. Ta aldizkariaren aribidearekin ikusiko dugu zenbaiteraino diran desberdiñak armak eta zenbaiteraino den gezurrezkoa demokraziaren forma utsa.

Aldizkariak, eta egunerokoak batez ere, salbentan dute baiño balio gutxiagoarekin egoten dira. Berez eguneroko baten balioa, prezioa, galestia da, baiñan salbentarako ezin lezateke prezio orri jarri bestela jendeak ez luteke inbeste erosiko. Nortusuek pagatzen dute orduan aldizkari baten balioaren eta salbentarako prezioaren arteko diferentzia? Anunzioak jartzen dituztenak. Eta nortusuek egiten dituzte anunzioak? Kapitalistak, eta oiek lehen esandako konserbadore ta eskuindar oietakoak dira.

Ezkertiarraren aldizkariak eta egunerokoak, benetan ezkertiari ta progresista baldin badira beinepeñ, kapitalista oien interes konkretuei burruka egin behar dizite. Ori egitezkoan ordea kapitalistak ez dituzte ezkertiarraren aldizkariak finantziatuko anunzioen bitartez. Ta orrela irixten da egun batez ezkertiarraren aldizkariaren eriotza «demokraziaren» barruan. Begiak irikitzea aski da Europa guztian ori ikusteko.

Suezia'ko gobernu sozial-demokrata bakarrik saiatu da gaitz edo obeto esateko kontradikzio-au sendatzen. Naiz eta asiera batean konserbadoreen ezekoa izan Suezia'ko gobernuak subentzio bat emango dio partidu bakoitzari bere botuen proportziona. Sozialistak subentzio ori oso osorik bere aldizkariak salbatzeko erabiliko dute.

Elezioak benetakoak izateko ta aukera benetan egiteko aurrez aurre zein diran aukeratu litezkenak jakin behar da. Ta ori jakiteko behar beharrezkoa da era guztietako aldizkariak izatea Eskuindarrak bakarrik baldin badira ordea aurrez aurre elezio oiek gezurrezkoak dirala esan ditek.

Baiñan ori orrela gertatzen dela ta bere ezina justifikatuaz ezkertiarrak ezin litezke eskuak tolestuta gelditu. Taktika giro bakoitzean eraberritu behar den zerbitu da ta okzidenteko gizarte onetan ezkertiarraren taktika bakarra «masa»ko partiduen bitartez jokatzea da. Langille klasea partidu politikoa eta sindikatua antzuan antzuan dituztenak eman dute xenplurik onena. Ostera esan dezadan ezkertiarrarentzat bide bakarra orixe dela: erria antzuan antzuan dirudun oiei behar bezela aurka egitea. Erria antzuan antzuan ta ez gutxi batzuek naiz eta aukeraz zarat aundia atera.

Orrexezagatik ezkertiari aldizkari bat biziko da erriaren gaur sustraitua baldin badago, bestela dilatantismo bat besterik ez dela ikusiko. Ta zoritxarrez ori gaur egunean ere ikusten dela uste dut.

RIKARDO ARREGI

Kapital atzerritarak espainira

Barcelona'ko "Promos" aldizkari interesantetik artu ditugu dato aukerak: 1965 gn lehenengo amaika illabetan 78'22 milioi dolarren inberstioak egiteko baimena eman zuan espainiko gobernuak, % 38 geiago 1964 gn lehenengo amaika illabetan baino. Inberstio oien erdia gutxi gora-bera (% 48) kapital Iparamerikanoak izan dire eta % 18 Suizakoak.

1959'tik 1964'ra, 257 milioi dolar atzerritikakoak sartu dira Espainian. Ekonomista batzuk ez dira oso kontent inberstio oriek artu duten bidea ikusirik, ez baidoaz nazioak bearrezkoan dituan industriengana (esate baterako zementuenak % 2'5, nekazaritzako tresnenak % 2'4, argi-inda-rrenak % 2'2, bakarrik artu dituzte) baizik eta serbitzuetara eta nazio-arteoko merkatuetatik datorkigun ondasunen industrietarako (esate baterako eta printzipalki, petroleo refinierietako).

Erdi-erdiako nazio batentzat ez dago dudarik atzerriko kapitalak laguntza aundia diranik, baiñan neurrikir gabe egiten danean arrixkuak ere baditu eta komeni zaigu kontuan artzea bederen.

nazio-arte-ko-unea

Gaur Filipinei buruz nahiko nizeuke mintzatu. Irakurleak dakien bezela, bi nagusi izan dituzte Filipina'k azken mende hauetan: 1898 arte, Espainia izan zaa nagusi; eta 1898-tik 1946-arte USA, alegia; Ameriketako Erresuma-Alkartzatu. 1946-ean, beraz, amerikaren "base" entzako 99 urtetako baimen berezi bat utziz, Filipinak bere buruaren jabe jarri ziran Roxas'en len-dakaritzapean.

Lau mendez hortaz, Filipina'k Espainia'ren menperatasuna izan dute, eta mende erdi batez amerikarrena. Nolokoa zuan Filipinen egoera 1946-ean askatasuna lortu zutenean? Ezer harritzekorik ez: ekonomia eta politika, jakintza eta nolana hiko agintea, kanpotarren eskuetan zegoen. Nagusien klasea espainola eta amerikarra zuan, hirietan batez ere. Gaurkotatua zuen edozein gauzak, espainol eta amerikar kutsua zuen. 1946 arte Filipinak kolonia bat ziran. Gobernuak kanpotarren interesak zaintzen zituen; eta zegoen kultura apurra kanpotarren zerbitzuan eta hizkuntzan egiten zuan.

Orain dala 20 urte Filipina'k bere askatasuna lortu zutenean, beste edozein koloniar izan dituen buru-haustek izan zituzten. Horien arteko bat, noski, irakurle batzuk izango zuten: zein hizkuntza jarri Filipinetan erresuma-hizkuntzat?

Filipinetan anitz ugarte dago. Luzon da haundiena; baiña ba dira gehiago ere, ehunka. Danetara, hori dala-ta, hizkuntza anitz dago ere, ugarte batetik bestera bestelaketen diranak. Hamabi hizkuntza daude, beraz, ugarte haietan. hizkelgiak kontutan hartu gabe. Hori-tatik bat, tagalera, zabalena da.

Filipinatarrak ba zuten aukeratu, behar larri bat, a-erienez. Tagalera, eta are gutxiago beste hizkuntza txiki haiek, ez zuten ez batasunik eta ez literaturarik ere. Kontra espainera eta inglesera ikusten zituzten, kolonialismoaren denboretan sartuak; eta bertako haundiek hitzegiñak. Tagalera zer zan? Jende xehearen mintzaira ahul bat. Besterik ez. Zer egingo?

Filipinatarrak, halere, tagalera aukeratu zuten legehizkuntzat. Lehenengo aldiz tagalera filipinatarraren erresuma-hizkuntza bihurtu zan, espaineraren eta ingleseraren aurka. Klase nagusiak, aberatsak eta entzuzteko familiak, espaineraz eta ingleseraz ari ziran.

Zer gertatu da?

Goian eman ditugun eundik inbesterako ondo erakusten digute atzerritikako inberstioak inportantzi aundiegia dutela Espainian, denetarik erdia baino geiago oietakoak izanik. Gaiñera artu duten bidea ez da segur onena Espainiako estruktura aldatuazteko, esan degun bezela beharrezko industriak laguntzarik gabe lehenengo abiada makalean jarraitzen baidute. Estruktura aldatzen ez diran bitartean, kapital oriek dakarkiten eta emango duten aberastasuna erriarentzat gezurrezkoa izango da, ez benetako, eta kapitalismo berri bat sortuko da (sortu da), zeinen baitan dirudunen eta langillen arteko aldea aundiagotzen jungo baita. Behar ginuen bakarra!

Au da arriku aundienetako, baiñan bada beste bat bistan dagona eta behar bada erriarentzat nabaragunago agertzen dena, alegia, kolonialismo ekonomiko berri bat, inberstioak datozten errian menpe egon beharra. Aspalditik kezkatzen asiak ziren Europa Sartaldeko nazio aurreratu- netako ekonomistak kolonialismo berri au zela bide, gu baino arriku tikiagoa izanik ere euren nazioetan. Baiñan gure arteko konzientzi ona edo ajolabekeria izugarria bide da eta iñor ez da izutu orain artio. Egunean eguneko egin eskeroz kontent gaude eta patxaren bizi gera. Baiñan periloa da Kristoren esanak Ekonomiarri egokitzea besterik gabe: Ekonomia bista luzeago behar da eta egin genezake kontent egun eguneroko oigakin bakarrik, batez ere eguneroko ogia ere urri dugularik.

M. LASA

"Orbis" aldizkariak orain dala bi urte eman di'uen berriak nere irakurleek jakitea merezi du (ikus "Orbis", 1963).

Filipina'k hoge milioi lagun dituzte. Hoge horietatik host bat eskolagabeak dira. Zenbaterik egiten dute tagalera, espaineraz eta ingleseraz?

Bi hizkuntzalariren atzerketak aipatzen ditu aldizkariak: Wagner eta Heineisenak.

Españera galdutza eman ditek. Orain dala 68 urte ezkeroritik administrazioa espaineratik inglesera (eta tagalera 1946-ean) pasa zan. Azken espainerazko aldizkariak hil egin dira urte hauetan. Eta hoge eta bi mila eskoletan tagalera erakusten da.

Wagner' ek jakiñarazten digunez, espainera bi probintzitan egiten da bakarrik: Manila'koan eta Cavite'koan. Zenbaterik? Ehunetik hamabi batek, Wagner' en ustez.

Heinisch'en lanak 1954-koak dira (espainerazko administrazioa kendu ezkeroritik, 56 urte, beraz). Heinisch'en ustez, zortzi bat milioi tagalera mintzo dira; 4.300.000 ingleseraz hitzegin "dezateke"; eta espaineraz 450.000 batek ("dezateke" beti, Heinisch'en hitzak erabilteko). Españeraz, beraz, 2,2 % 1954-ean.

Españera, bestetik, gainbehera doa. Irakurleak uler dezakean ezkeror. Heinisch'en beraren hitzak aipatuko ditut: "(los que aún pueden hablar en español) son en general gente de más de 30 años. Entre los jóvenes de Manila y de Tagaytay no encontré ninguna persona capaz de hablar español. Hablaban tagalo, y le an los periódicos escritos en tagalo; sabian además bastante inglés para defenderse en la vida diaria" (ikus 473 gn. horrialdean).

Unibertsidadean ere tagalera sartu da, ingleseraren batera.

488 aldizkari ere tagalera agertzen dira gaur.

Ikertzaileen ustez, beraz, hemendik urte batzutura tagalera nagusi izango da. Españera ahaztua edo pertsona zahar batzuen ahoan bakarrik; eta inglesera kanporako hizkuntza izango da.

GOIENETXE

RADIO - TELEVISION



TV - TRILUX

Saltzaillea:

CENTRAL DE MATERIALES ELECTRICOS S. A.

Beste edozein markakoa baiño iru aldiz berriago ta gaurkoagoa

Ordaintzeko errettasun aundiak.